

## **BEASAIN / Haurrentzako ipuinak kontatuko ditu gaur eta bihar Maite Frankok**

**Lehen saioa liburutegian da gaur, eta beste biak bihar haur txokoan eta gazte txokoan**

U. Barandiaran

Gaur eta bihar literaturarekin jolasteko aukera izango dute Beasaingo gaztetxoek. Eurei bereziki zuzendutako ipuinak kontatuko ditu Maite Franko kontalariak. Lehen saioa gaur izango da, 17:30ean hasiko da emanaldia liburutegian. Klo-klo-klotilde oiloraren ipuinak izenburupean ordubete inguruko saioa eskainiko du Frankok.

Beste emanaldiak bihar izango dira Txelotxe udal ludotekan. Lehena 17:15ean izango da haur txokoan, eta bigarrena 18:00etan gazte txokoan. Ipuin kontalariak eduki ohi duten xarma berezia du Maite Frankok ere, eta gaztetxoek adi-adi berak dioena entzuten dute saioak irauten duen bitartean. Beraien parte-hartzeaz ere baliatzen da sarritan. Ez da lehenbiziko aldia Beasaingo hurrei ipuinak kontatzen dizkiena, eta dagoeneko ezaguna da herriko haurren artean.